2024MDID0001
Errotulatzeko laguntzak 2024

**ESKORIATZAKO ESTABLEZIMENDUETAKO ERROTULUAK EUSKARAZ JARTZEKO, ETA IRUDI KORPORATIBOA EUSKARAZ SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK ARAUTZEKO OINARRIAK.**

2023ko abenduaren 21ean, Eskoriatzako Udalaren 2024-2027 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zen (2024ko otsailaren 28ko, 42. GAO) . Plan horretan lerro estrategikoak jasotzen dira, eta horietako 7. zenbakia Sustapen Ekonomikoa eta Soziala izenekoa da. Lerro horren B atalean jasotzen dira Negozioen sustapena: errotuluak eta irudi korporatiboa euskaraz dirulaguntzak.

## 1. Helburua.

Oinarri hauen helburua da herriko saltoki, ostalaritza-establezimendu eta enpresetan errotuluak eta irudi korporatiboa euskaraz jartzeko emango diren dirulaguntzak arautzea.

## 2. Organo eskuduna.

Oinarri hauek onartzeko organo eskuduna Alkatea da (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.e) artikuluan aurreikusitakoaren arabera).

## 3. Araudi aplikagarria.

Oinarri hauek eta dirulaguntzak ematerakoan indarrean dauden gainerako arauek arautuko dituzte dirulaguntza hauek eta baita onuradunaren eta erakunde emailearen arteko harreman juridikoa ere.

Oinarri hauetan aurreikusi gabekoetarako honako hauek aplikatuko dira:

- Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena arautzen duen Ordenantza Orokorra (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 85. zenbakia, 2021eko maiatzaren 10a).
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- Diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra (Estatuko Aldizkari Ofiziala: 2003-11-18) eta lege hori garatzeko uztailaren 21eko

887/2006 Errege Dekretuaz onartutako Dirulaguntzei buruzko Erregelamendu orokorra.
- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, eta, zehazki, 17.25 artikuluak, honako hau jasotzen duena udalerrien eskumen propiotzat: "Tokiko ekonomia- eta gizarte-garapena eta tokiko enplegu-politikak edo -planak".
- Diru laguntzei buruzko Eskoriatzako Udalaren 2024-2027 Plan Estrategikoa (2024ko otsailaren 28ko 42. GAO).
- -Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko 1/2016 Legea.
- -Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legearen testu bateginaren 23. artikulua.

**4. Diru izendapena.**

Aurrekontu esleipena mila bostehun eurokoa (1.500,00 euro) izango da, eta 2024rako honako aurrekontu-partidaren kargura finantzatuko da: 0100.471.431.00.01.

**5. Dirulaguntzaren zenbatekoa.**

Oinarrietako baldintza guztiak betetzen dituztelako onartutako eskaeren artean banaketa proportzionala egingo da eskaera bakoitzak egiaztatutako gastua kontuan izanda.

Dirulaguntzak ezingo du inolaz ere gainditu egiaztatutako gastuaren % 100a.

**6. Onuradunak.**

Onuradun izan ahalko dira ondorengo baldintzak betetzen dituzten pertsona fisikoak, juridikoak eta baita ondasun-erkidegoak ere:

a) Merkataritza edo ostalaritza jarduera bat Eskoriatzan egitea edo egiteko asmoa izatea.
b) Jarduera hori egiteko udal lizentzia izatea.
c) Azaroaren 17ko 38/2003 Legeko 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan aipatzen diren dirulaguntzak jasotzeko debekuetatik batean ere ez egotea.

Izaera publikoa duten entitateei ez zaie dirulaguntzarik emango.

**7. Diruz lagungarri izan daitezkeen gastu kontzeptuak.**

Diruz lagundu ahal izango dira egun dauden edo irekiko diren merkataritza edo ostalaritza establezimenduetako ondorengo jarduerak, betiere, oinarri hauetan

ezarritako baldintzak betez gero eta 2023ko azaroaren 1etik 2024ko urriaren 31 bitartean egindakoak badira:

1. Errotuluak euskaraz jartzea: errotulutzat hartuko dira fatxadan nahiz merkataritza edo ostalaritza establezimenduaren ate eta kristaletan jartzen direnak.
2. Irudi korporatiboaren euskarriak euskaraz egitea. Irudi korporatiboko elementuak izan daitezke toldoak, bisita txartelak, zigiluak, fakturak, ibilgailuen errotulazioak, poltsak eta batzeko paperak edo antzeko elementuak.

**8. Jarduerek bete beharreko baldintzak.**

Euskarazko publizitate-errotuluetarako eta irudi korporatiboko elementuak ekoizteko dirulaguntzak jasotzeko honako baldintza hauek bete beharko dira:

1. Errotuluaren edo irudi korporatiboa euskara hutsean egotea.
2. Errotuluan edo irudi korporatiborako sortutako materialean jardueraren izena agertzea (hau da, taberna, jatetxea, ile apaindegia, fruta denda ...).
3. Testua zuzen idatzita egotea.
4. Errotuluak jartzeko dirulaguntzak jaso ahal izateko ezinbestekoa da errotulua jartzeko baimena izatea.

**9. Dirulaguntza eskatzeko modua eta epea.**

Eskaerak sinatuta, eredu normalizatuaren arabera eta dagokien dokumentazioarekin batera aurkeztu beharko dira.

Pertsona fisikoek eskaera modu presentzialean edo telematikoan aurkeztu ahal izango dute. Pertsona juridikoek, berriz, 39/2015 Legearen 14.artikuluan xedatutakoaren arabera, administrazio publikoekin harremanak bitarteko elektronikoen bitartez izateko betebeharra dute. Hori horrela, telematikoki egin beharko dute eskaera.

Modu presentzialean astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 14:30era udaletxeko H@ZI zerbitzuan.

Modu telematikoan eguneko 24 ordutan, asteko 7 egunetan, Eskoriatzako Udalaren egoitza elektronikoaren (www.eskoriatza.eus ) “Tramiteak” atalean. (https://labur.eus/R9fsY)

Eskaerak aurkezteko epea iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik aurrera 2024ko urriaren 15era arte.

## 10. Aurkeztu behar diren agiriak.

Interesdunek laguntzak eskatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa:

1. Dirulaguntza eskaera orria. Orrian bertan aitortu beharko ditu honako hauek (onartu ezean, horiei buruzko dokumentazio espezifikoa aurkeztu beharko du):
   - Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.
   - Ez duela hasita edo tramitean administrazioari dirua itzultzeko inolako prozedurarik.
   - Ez duela jarduera bererako beste dirulaguntzarik eskatu. Eskatu badu, horri buruzko dokumentazio espezifikoa aurkeztu beharko da-
   - Ez duela sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan indarrean dagoen eta aplikatu beharrekoa den araudia urratzeagatik administrazio-zigorrik, ez zigor penalik.
   - Bere xede edo helburuak ez direla emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuneko printzipioaren kontrakoak.
   - Ez duela dirulaguntzen buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13.2 eta 13.3 ataletan jasotako debekurik (Estatuko Boletin Ofiziala 2023ko azaroaren 18koa).
2. Jarriko den errotuluaren edo irudi korporatiboarekin egingo den elementuaren testu eta diseinu proposamena. Errotulua jarrita badago, horren argazkia; eta irudi korporatiboko elementua eginda egonez gero, sortutako materialaren (orrien, txartelen, poltsen…) ale bana.
3. Gastuaren aurrekontua edo faktura (gastua eginda dagoenean).

Eskoriatzako Udalak zuzenean eskatuko dizkie beste administrazio batzuei eskatzaileak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete dituela egiaztatzeko behar diren datuak. Eskatzailea horren aurka agertzen bada eskaera-orrian, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu.

Era berean, eskatzaileak errotulua jartzeko baimena baduela egiaztatuko da Eskoriatzako Udalean bertan.

Eskaera aurkezteak eskatzaileak oinarri hauetan ezarritako baldintzak osorik onartzea dakar.

## 11. Dirulaguntzak emateko prozedura.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 22.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, oinarri hauetako laguntzak ebaluazio bakoiztu erregimenean emango dira, Eskoriatzan -inor baztertu gabe- merkataritza,

ostalaritza eta zerbitzuak orohar sustatu eta dinamizatu gura duten laguntza hauek izaera berezia baitute.

Norgehiagoka prozedura batean ez dago aukerarik alderatutako baloraziorik egiteko aurkeztutako eskaeren artean, eta, aurrekontu kontsignazioarena ez bada, beraien artean ezin da beste harreman elementurik ezarri. Dirulaguntzak emateko prozedura ofizioz hasiko da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den alkate erabakiz onartutako deialdiaren bidez.

**12. Akatsak zuzentzea eta dokumentazio osagarria.**

Eskabideak edo horrekin aurkeztu beharreko dokumentuek akatsik izanez gero edo osatugabeak badira, interesdunari, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68 artikuluan jasota bezala, hamar eguneko epea emango zaio antzemandako akatsak konpontzeko. Eta ohartaraziko zaio epea igarota horrelakorik egin gabe, eskariari uko egin diola ulertuko dela, Lege horretako 42.1 artikuluan aurreikusitako moduan.

Aurkeztutako eskaera egoki ebaluatu eta erabaki ahal izateko beharrezkotzat jotzen duen behar beste dokumentu eta informazio osagarri eskatu ahal izango die Udalak eskatzaileei.

**13. Eskaerak tramitatzeko ardura duen administrazio unitatea.**

Eskaerak Garapen Ekonomiko Jasangarriko administrazio unitateak tramitatuko ditu.

**14. Prozedura eta erabakia.**

Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, Garapen Ekonomiko Jasangarriko teknikariak aztertuko ditu eskaerak, eta dokumenturen bat faltako balitz, 10 eguneko epea emango da horiek aurkezteko.

Epe hori amaituta eskatutako dokumentazioa aurkeztu gabe, dirulaguntza eskaerari uko egiten zaiola ulertuko da.

Arloko teknikariak txostena eginda, Garapen Ekonomiko Jasangarriko batzorde informatzailean aztertuko dira.

Erabaki proposamena egin aurretik, Udalak, batzorde informatzailearen bidez, beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarria eskatu ahal izango du.

Garapen Ekonomiko Jasangarriko batzorde informatzaileak dirulaguntza emateko proposamena egingo dio Alkateari, dagokion erabakia har dezan.

Erabakia ahalik eta epe motzenean hartuko da, gehienez ere eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik hiru hilabetera. Onartu ez diren eskaerak ere epe horretan jakinaraziko dira.

**15. Dirulaguntza ordaintzeko modua.**

Dirulaguntza emateko ordainketa bakarra egingo da, gastua egin dela eta betebeharrak bete direla egiaztatutakoan, eta dagokion organoak horrela agindutakoan.

**16. Dirulaguntza justifikatzeko epea eta modua.**

Dirulaguntzaren justifikazioa egiteko azken eguna 2024ko urriaren 31 izango da. telematikoki edo presentzialki Eskoriatzako H@ZI zerbitzuan.

Dirulaguntza jasotzeko honako dokumentazioa eskatzen da:

- Egindako gastuen fakturak.
- Egindako errotulazioaren dokumentazio grafikoa (argazkiak).
- Irudi korporatiborako sortutako materialaren ale bana (sobre, txartel, orri…).

**17. Bategarritasuna beste dirulaguntza batzuekin.**

Udalak emandako dirulaguntza bateragarria izango da helburu bererako emandako beste edozeinekin.

Hala ere, dirulaguntza ezin izango da izan, bera bakarrik edo beste laguntza batzuekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

**18. Dirulaguntza aldatzea.**

Dirulaguntza ematerakoan kontuan hartutako baldintzak aldatzen baldin badira edo helburu berarekin beste erakunde batzuk emandako dirulaguntzarik jasoz gero, horiek dirulaguntza emateko erabakia aldatzea ekar dezakete.

**19. Dirulaguntza bertan behera uztea edo baliogabetzea.**

Dirulaguntza berraztertzeko eta, hala bada, bertan behera uzteko arrazoia izango da dirulaguntza jasotzea eskatutako baldintzak bete gabe.

Onuradunak oinarri orokor hauetan, oinarri zehatzetan eta aplikagarri den gainerako araudian ezarritako edozein eskakizun edo betebehar ez betetzeak dirulaguntza jasotzeko eskubidea erabat edo partzialki galdutzat jotzeko aitorpena

ekarriko du, eta baita dirulaguntza osorik edo partzialki, dagozkion berandutze interesekin batera, itzultzeko betebeharra ere.

Ez betetze horiek mailakatzeko proportzionaltasun irizpideak erabiliko dira, diruz lagundutako jarduera guztietatik egindakoaren eta jasotako diruaren arabera kalkulatuko direnak.

**20. Oinarriak interpretatzea.**

Oinarriak interpretatzerakoan eta garatzerakoan sor daitezkeen zalantzak Garapen Ekonomiko Jasangarriko batzordeak erabakiko ditu.

**21. Publizitatea.**

Emandako dirulaguntza guztien publizitatea egingo du udalak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 18. artikuluan xedatzen denez.

**22. Datu pertsonalen tratamendua.**

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorra aplikatuz, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legearen Zortzigarren Xedapen Gehigarria aplikatuz eta, oro har, 39/2015 Legearen 28. artikuluan jasotako aurreikuspena aplikatuz, dirulaguntza hauek kudeatzeko ez da beharrezkoa izango interesdunaren baimena, eta udalak bere eskumenak erabiliz datuen zehaztasuna egiaztatzeko behar beste egiaztapen egin ahal izango du, bai eta bere esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak kontsultatu eta eskuratu ere.

Baldintzak edo betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko, Eskoriatzako Udalak honako kontsulta hauek egingo dizkie beste administrazio batzuei:

— Interesduna Foru Ogasunarekiko zerga-betebeharrak beteta ote dituen. Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ere beteta ote dituen.

Interesdunak era arrazoituan bere datuak kontsultatzearen aurka egiten badu, dirulaguntza izapidetu ahal izateko behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko du.

**23. Oinarri hauen aurkako errekurtsoa.**

Oinarri hauen aurka berraztertzeko errekurtsoa jarri dakioke oinarriak onartu dituen organo eskudunari. Horretarako hilabeteko epea izango da. Bestela, zuzenean inpugnatu daitezke Administrazioarekiko Auzitegian, eta horretarako bi

hilabeteko epea izango da. Epe biak oinarri hauek GAOn argitaratzen diren biharamunean hasiko dira kontatzen.

2023MDID0002
Errotulaziorako dirulaguntzak 2023

**BASES REGULADORAS DE LAS SUBVENCIONES PARA ROTULACIÓN EN EUSKERA Y PROMOCIÓN DE LA IMAGEN CORPORATIVA EN EUSKERA DE LOS ESTABLECIMIENTOS DE ESKORIATZA.**

El 21 de diciembre de 2023 se aprobó el Plan Estratégico de Subvenciones 2024-2027 del Ayuntamiento de Eskoriatza (BOG Nº 42, de 28 de febrero de 2024). En este plan se recogen las líneas estratégicas, de las cuales la número 7 es "Promoción Económica y Social". En el apartado B de esa línea se recogen las subvenciones para la promoción de negocios: rotulación e imagen corporativa en euskera.

## 1. Objeto.

El objeto de las presentes bases es regular la concesión de subvenciones para la colocación de rótulos en euskera y la producción de elementos de imagen corporativa en euskera en comercios, establecimientos hosteleros y empresas del municipio.

## 2. Órgano competente.

El órgano competente para la aprobación de las presentes bases es el Alcalde (de conformidad con lo dispuesto en el artículo 22.2 e) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local).

## 3. Normativa aplicable.

Estas subvenciones se regirán por las presentes bases y demás normativa vigente en el momento de su concesión, así como por la relación jurídica entre el beneficiario y la entidad concedente.

En lo no previsto en estas bases serán de aplicación:

- Ordenanza General reguladora del régimen de concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Eskoriatza (Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 85, de 10 de mayo de 2021).
- Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.
- Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (BOE 18-11-2003) y Reglamento General de Subvenciones, aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, en desarrollo de la misma.

- La Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, y en concreto su artículo 17.25, recoge como competencia propia de los municipios "Desarrollo económico y social local y políticas o planes locales de empleo".
- Plan Estratégico 2024-2027 de subvenciones del Ayuntamiento de Eskoriatza (BOG 42, de 28 de febrero de 2024).
- Ley 1/2016 de Atención Integral de Adicciones y Drogodependencias.
- Artículo 23 del texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y para una Vida libre de Violencia Machista contra las Mujeres, aprobado por Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo.

## 4. Asignación económica.

La consignación presupuestaria será de mil quinientos euros (1.500,00 euros) y se financiará con cargo a la partida presupuestaria 0100.471.431.00.01 para el año 2024.

## 5. Cuantía de la subvención.

Con las solicitudes que han sido admitidas por concurrir todos los requisitos exigidos en las presentes bases se aplicará un sistema de reparto proporcional al importe del gasto acreditado en cada solicitud.

El importe de la ayuda no podrá superar en ningún caso el 100% del gasto acreditado.

## 6. Beneficiarios.

Podrán ser beneficiarias las personas físicas, jurídicas y comunidades de bienes que cumplan los siguientes requisitos:

a) Desarrollar o tener intención de desarrollar una actividad comercial u hostelera en el municipio de Eskoriatza.
b) Disponer de licencia municipal para desarrollar dichas actividades.
c) No incurrir en ninguna de las causas de prohibición para la obtención de subvenciones señaladas en los apartados 2 y 3 del art. 13 de la Ley 38/203, de 17 de noviembre.

No se concederán subvenciones a las entidades de carácter público.

## 7. Conceptos de gasto subvencionables.

Serán subvencionables las siguientes actividades de establecimientos comerciales u hosteleros existente o que se vaya a abrir, siempre que se cumplan las

condiciones establecidas en las presentes bases y que se realicen entre el 1 de noviembre de 2023 y el 31 de octubre de 2024:

1. Colocar rótulos en euskera: tendrán la consideración de rótulos los que se coloquen tanto en la fachada como en las puertas y cristales del establecimiento comercial u hostelero.
2. Realizar en euskera los soportes de la imagen corporativa: los elementos de imagen corporativa pueden ser toldos, tarjetas de visita, sellos, facturas, rotulaciones de vehículos, bolsas y papeles de envolver o elementos similares.

## 8. Requisitos que han de cumplir las actuaciones.

Para recibir subvenciones para rótulos publicitarios y producción de elementos de imagen corporativa en euskera, deberán de cumplirse los siguientes requisitos:

1. El rótulo o el texto de la imagen corporativa deberá de estar escrito exclusivamente en euskera.

2. Detallar la actividad (bar, restaurante, peluquería, frutería…) en el rótulo o en el material creado para la imagen corporativa.

3. El texto deberá de estar escrito correctamente.

4. Para poder percibir las subvenciones por rótulos es imprescindible disponer del permiso para instalarlo.

## 9. Forma y plazo de presentación de las solicitudes de subvención.

Las solicitudes deberán presentarse firmadas, según modelo normalizado y acompañadas de la documentación correspondiente.

Las personas físicas podrán presentar la solicitud de forma presencial o telemática. Las personas jurídicas, en virtud de lo dispuesto en el artículo 14 de la Ley 39/2015, tienen la obligación de relacionarse con las Administraciones Públicas por medios electrónicos. Por ello, deberán realizar la solicitud telemáticamente.

De forma presencial de lunes a viernes, de 8:00 a 14:30 horas en el servicio H@ZI del Ayuntamiento.

De forma telemática las 24 horas del día, los 7 días de la semana, en el apartado "Trámites" de la sede electrónica del Ayuntamiento de Eskoriatza (www.eskoriatza.eus) (https://labur.eus/R9fsY)

Plazo de presentación de solicitudes a partir del día siguiente al de la publicación del anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa hasta el 15 de octubre incluido.

## 10. Documentación a presentar.

1. Instancia de solicitud de subvención. En la propia hoja deberá declarar (en caso de no ser aceptada deberá aportar documentación específica sobre las mismas):

   - Que se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.
   - Que no tiene iniciado o en trámite procedimiento alguno de reintegro a la Administración.
   - Que no ha solicitado ninguna otra subvención para la misma actividad. En su caso, deberá aportar documentación específica al respecto.
   - Que no está sancionada administrativa ni penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo ni por vulnerar la normativa vigente y aplicable en materia de igualdad de mujeres y hombres.
   - Que sus fines no son contrarios al principio de igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres.
   - Que no se encuentra incursa en ninguna de las prohibiciones establecidas en los artículos 13.2 y 13.3 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (Boletín Oficial del Estado de 18 de noviembre de 2023).

2. Propuesta de texto y diseño del rótulo o elemento a realizar. En el caso de que ya se haya colocado el rótulo, fotografía del mismo; y si el elemento de la imagen corporativa ya está realizado, un ejemplar de cada material generado (hojas, tarjetas, bolsas).

3. Presupuesto del gasto o factura (cuando el gasto está realizado).

El Ayuntamiento de Eskoriatza solicitará directamente a otras administraciones los datos necesarios para acreditar el cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social por parte del solicitante. En el caso de que la persona solicitante se oponga a ello en la instancia, deberá presentar la documentación acreditativa de hallarse al corriente de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.

Asimismo, se comprobará en el propio Ayuntamiento de Eskoriatza que el solicitante dispone de autorización para la colocación del rótulo.

La presentación de la solicitud implica la aceptación íntegra por parte del solicitante de las condiciones establecidas en las presentes bases.

## 11. Procedimiento de concesión.

De conformidad con lo establecido en el artículo 22.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, las ayudas a las que se refiere la presente convocatoria serán resueltas mediante el procedimiento de concesión en régimen de evaluación individualizada, dada la naturaleza excepcional de estas ayudas que pretenden fomentar y dinamizar el comercio, la hostelería y los servicios en general en el municipio de Eskoriatza sin discriminar a nadie.

No existe posibilidad de efectuar una valoración comparativa entre las solicitudes que se presenten en el marco de un procedimiento de concurrencia competitiva, no pudiendo establecerse otro elemento de relación entre sí que el de la consignación presupuestaria. El procedimiento de concesión se iniciará de oficio, mediante convocatoria aprobada por Resolución de la Alcaldía publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

## 12. Subsanación de errores y documentación complementaria.

Si la solicitud o la documentación que debe acompañarla adolecieran de algún error o fueran incompletas, se requerirá al solicitante, de acuerdo con lo establecido en el artículo 68 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, para que, en el plazo de diez días, subsane los defectos detectados, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, en los términos previstos en el artículo 42.1 de ese mismo texto legal.

El Ayuntamiento podrá requerir a los solicitantes cuanta documentación e información complementaria considere necesarias para la adecuada evaluación y resolución de la solicitud presentada.

## 13. Unidad administrativa responsable de la tramitación de las solicitudes.

Las solicitudes serán tramitadas por la unidad administrativa de Desarrollo Económico Sostenible.

## 14. Procedimiento y resolución.

Una vez finalizado el plazo de presentación de solicitudes, la técnica del área de Desarrollo Económico Sostenible examinará las solicitudes y, en caso de que falte algún documento, se concederá un plazo de 10 días para su presentación.

Transcurrido dicho plazo sin que se haya presentado la documentación requerida, se entenderá que renuncia a la solicitud de subvención.

Previo informe de la técnica del área, las solicitudes se analizarán en la Comisión Informativa de Desarrollo Económico Sostenible.

Con carácter previo a la propuesta de resolución, el Ayuntamiento, a través de la comisión informativa, podrá solicitar la información complementaria que considere necesaria.

La Comisión Informativa de Desarrollo Económico Sostenible elevará la propuesta de concesión de la subvención al alcalde para que éste adopte la resolución correspondiente.

La decisión se adoptará en el plazo más breve posible, a más tardar tres meses después de la finalización del plazo de presentación de solicitudes. Las solicitudes no admitidas también se notificarán en dicho plazo.

**15. Forma de pago de la subvención.**

El abono de la subvención se realizará en un único pago, una vez se haya certificado la realización del gasto y el cumplimiento de las obligaciones y así lo ordene el órgano correspondiente.

**16. Plazo y forma de justificación de la subvención.**

La justificación de la subvención deberá realizarse en el servicio H@ZI de Eskoriatza, de forma telemática o presencial, el último día será el 31 de octubre.

Para acceder a la subvención se deberá de presentar la siguiente documentación:

- Facturas de los gastos realizados.
- Documentación gráfica de la rotulación realizada (fotografías).
- Un ejemplar de cada material creado para la imagen corporativa (sobres, tarjetas, hojas…).

**17. Compatibilidad con otras subvenciones.**

La subvención concedida por el Ayuntamiento será compatible con cualquier otra que pudiera concederse para la misma finalidad.

No obstante, la subvención no podrá superar, por sí sola o en concurrencia con otras ayudas, el coste de la actividad subvencionada.

**18. Modificación de la subvención.**

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, y en su caso, la obtención concurrente de otras subvenciones y ayudas concedidas por otras entidades, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión de la subvención.

## 19. Anulación o revocación de la subvención.

Será causa de revisión y, en su caso, de anulación de la subvención, la percepción de la misma sin reunir los requisitos exigidos.

El incumplimiento por parte del beneficiario de cualquiera de los requisitos u obligaciones establecidos en las presentes bases generales, bases específicas y demás normativa aplicable, dará lugar a la declaración de pérdida total o parcial del derecho a la percepción de la subvención y a la obligación del reintegro total o parcial de la misma junto con los correspondientes intereses de demora.

Para la graduación de estos incumplimientos se utilizarán criterios de proporcionalidad, que se calcularán en función de las actividades realizadas entre todas las subvencionadas y de la cantidad percibida.

## 20. Interpretación de las bases.

Las dudas que puedan surgir en la interpretación y desarrollo de las bases serán resueltas por la Comisión de Desarrollo Económico Sostenible.

## 21. Publicidad.

El ayuntamiento dará publicidad a todas las subvenciones concedidas, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 18 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

## 22. Tratamiento de datos personales.

En aplicación de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, de la Disposición Adicional Octava de la Ley 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los derechos Digitales, y, en general, de la previsión contenida en el artículo 28 de la Ley 39/2015, no será preciso el consentimiento de la persona interesada para la gestión de estas subvenciones, y el ayuntamiento podrá efectuar en el ejercicio de sus competencias, las verificaciones necesarias para comprobar la exactitud de los datos, y consultar y recabar documentos que se encuentren en su poder o hayan sido elaborados por cualquier otra Administración.

Para acreditar el cumplimiento de los requisitos u obligaciones, el Ayuntamiento de Eskoriatza realizará ante otras Administraciones las siguientes consultas:

—Si la persona interesada está al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias con la Hacienda Foral. Así mismo, si se encuentra al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones para con la Seguridad Social.

En los supuestos en los que la persona interesada se oponga de forma motivada a la consulta de sus datos, debe aportar toda la documentación necesaria para su tramitación.

## 23. Recursos contra las bases.

Contra las presentes bases podrá interponerse recurso de reposición ante el órgano competente para su aprobación. El plazo para ello será de un mes. En caso contrario, podrán impugnarse directamente ante el Tribunal Administrativo en el plazo de dos meses. Ambos plazos comenzarán a contarse al día siguiente de la publicación de estas bases en el BOG.

# DIRULAGUNTZA ESKAERA
Solicitud de subvención

| **IZEN-ABIZENAK /** Nombre y apellidos | **NAN /** DNI |
|---|---|
| | |

**Orri hau beste baten izenean betez gero, idatzi horren datuak ere ondorengo taulan:**
En caso de formalizar este escrito en nombre de una tercera persona o entidad, rellenar los siguientes datos

| **ZEINEN IZENEAN /** En nombre de quién | **NAN/IFK** DNI/CIF |
|---|---|
| | |

**Jakinarazpena bidaltzeko datuak /** Datos para envío de notificaciones**:**

| **HELBIDEA /** Dirección | | **HERRIA /** Población | **PK** / CP |
|---|---|---|---|
| | | | |
| **TFNO. FINKOA /** Tfno. fijo | **TFNO. MUGIKORRA /** Tfno. móvil | **E-maila** | |
| | | | |

| **ESKATZEN DEN DIRULAGUNTZAREN IZENA /** Nombre de la subvención solicitada |
|---|
| |

| **BANKUKO DATUAK /** Datos bancarios | | | |
|---|---|---|---|
| **KONTUAREN JABEA**<br>Titular de la cuenta | | | |
| **BANKETXEA**<br>Entidad bancaria | | **KONTU zb. (20 digitu)**<br>Nº cuenta (20 dígitos) | |

**DATUEN EGIAZTAPENA /** Verificación de datos

3.000 €-tik gorako dirulaguntzetan, Eskoriatzako Udalak zuzenean egiaztatuko du deialdian ezarritako baldintzak betetzen direla, eta horretarako, behar dituen datuak NISAEren bidez (Euskadiko administrazioen elkarreragintasunerako eta segurtasunerako nodoa) eskuratuko ditu.

Zehazki, ondorengo kontsulta hauek egingo ditu:

- Interesdunak Gizarte Segurantzarekin eta Foru Ogasunarekin zerga obligazioak betetzen dituela.

Interesduna egiaztatze horren aurka ager daiteke, eta horretan eskatutako ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu

En las subvenciones de cuantía superior a 3.000 €, el Ayuntamiento de Eskoriatza verificará directamente el cumplimiento de las condiciones establecidas en la convocatoria, obteniendo los datos necesarios para ello a través de NISAE (nodo de interoperabilidad y seguridad de las administraciones de Euskadi).

Concretamente, realizará las siguientes consultas:

- Que la persona interesada se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias frente a la Seguridad Social y la Hacienda Foral.

La persona interesada podrá oponerse a dicha verificación, debiendo aportar en ese caso los certificados requeridos.

Aurka nago, eta beraz, eskatutako dokumentazioa aurkezten dut.
No estoy de acuerdo, y en consecuencia, aporto la documentación requerida.

| **ZINPEKO AITORPENA** / Declaración jurada | |
|---|---|
| **Eskatzaileak (edo berak ordezkatzen duen erakundeak edo pertsonak):**<br>El/la solicitante (o en su caso, la persona o entidad a la que representa): | |
| • Egunean al ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak?<br>¿Se encuentra al corriente en sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social? | ☐ **Bai** / Sí<br>☐ **Ez** / No |
| • Ba al du hasita edo tramitean dirua itzultzeko inolako prozedurarik Euskadiko Administrazio Orokorrean eta bere organismo autonomoetan, beraiengandik jasotako dirulaguntzen eremuan?<br>¿Se halla incurso en algún proceso de devolución económica ante la Administración General del País Vasco y sus organismos autónomos, en el ámbito de las subvenciones recibidas de ellos? | ☐ **Bai** / Sí<br>☐ **Ez** / No |
| • Beste inongo erakundetan eskatu al du dirulaguntzarik jarduera horretarako?<br>¿Ha solicitado a alguna otra entidad subvención para llevar a cabo las actividades mencionadas? | ☐ **Bai** / Sí<br>☐ **Ez** / No |
| • Sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan indarrean dagoen eta aplikatu beharrekoa den araudia urratzeagatik, jaso al du administrazio-zigorrik edo zigor penalik?<br>¿Ha recibido alguna sanción administrativa o penal por discriminación sexual o por infringir la normativa vigente y aplicable en materia de igualdad entre hombres y mujeres? | ☐ **Bai** / Sí<br>☐ **Ez** / No |
| • Bere xede edo helburuak, aukeratzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolamendua edo estatutuak, emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuneko printzipioaren kontrakoak al dira?<br>Sus fines u objetivos, sistema de admisión o acceso, funcionamiento, trayectoria, actuación, organización o estatutos, ¿son contrarios al principio de igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres? | ☐ **Bai** / Sí<br>☐ **Ez** / No |
| • Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan dirulaguntzak jasotzeko aipatutako debekurik ba al dauka?<br>¿Incurre en alguna de las causas de prohibición para la obtención de subvenciones, señaladas en los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la Ley 38/2003 de 17 de noviembre? | ☐ **Bai** / Sí<br>☐ **Ez** / No |

| DATUEN TRATAMENDUARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA<br>Información básica sobre el tratamiento de datos | | |
|---|---|---|
| **ESKORIATZAKO UDALA**<br>Kontuan hartuta zer xedatzen duten Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak, eta Datu pertsonalen babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak, jakinarazten dizugu formulario honetan jasotako datuen tratamendua konfidentziala izango dela eta ESKORIATZAKO UDALAren erantzukizunpean egingo dela, helbidea: Fernando Eskoriatza plaza 1, 20540 Eskoriatza (Gipuzkoa). | **Arduraduna**<br>**Responsable** | **ESKORIATZAKO UDALA – AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA**<br>De conformidad con lo dispuesto en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales; le informamos que los datos aportados en este formulario, serán susceptibles de tratamiento estrictamente confidencial bajo la responsabilidad de ESKORIATZAKO UDALA - AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA, con domicilio en Fernando Eskoriatza plaza 1. 20540 Eskoriatza (Gipuzkoa). |
| Laguntza kudeatzea eta baldintzak betetzen diren baloratzea.<br>Laguntza beste erakunde batek ematen badu, dokumentuak prestatzen eta bidaltzen laguntzea. | **Xedea**<br>**Finalidad** | Gestionar la ayuda y valorar el cumplimiento de los requisitos.<br>En caso de que sea otra entidad la que otorgue la ayuda, asistir con la elaboración de los documentos y envío de los mismos. |
| Datuak tratatzeko legitimazioa zuri eskatzen zaizun eta eskaera honekin batera entregatzen duzun baimen libre, argi, informatu eta agerian oinarritzen da, hori kentzeko aukera eragotzi gabe. | **Legitimazioa**<br>**Legitimación** | La legitimación para el tratamiento de los datos está basada en el consentimiento libre, expreso, informado e inequívoco que se le solicita, sin perjuicio de la posible retirada del mismo. |
| Interesdunak inprimaki honetan bertan emandakoak. | **Jatorria**<br>**Procedencia** | Facilitado por la propia persona interesada en la presente instancia. |
| Datuak eskumenak dituzten administrazio publikoei jakinaraziko zaizkie.<br>Beste entitate batzuei ere jakinaraziko zaizkie, zuzenean Udalak egiten ez dituen jarduerak egiteko. Jarduera horiek kontratu edo hitzarmen batean arautuko dira, eta horietan, datuak tratatzeko baldintzak ezarriko dira, araudia betetzen dela bermatzeko. | **Hartzaileak**<br>**Entidades destinatarias** | Los datos se comunicarán a las Administraciones Públicas con Competencias.<br>Y a otras entidades para el ejercicio de actividades que no se realicen directamente por el Ayuntamiento y que vendrán reguladas en un contrato o convenio, en los que se establecerán las condiciones del tratamiento de datos para asegurar el cumplimiento de la normativa. |
| Datuak eskuratzea, zuzentzea, ezabatzea, datuen tratamendua mugatzea eta aurkaratzea, eta datuak eramatea, bai eta informazio gehigarrian azaldu diren beste eskubide batzuk ere.<br>Eskubide horiek baliatu ditzakezu idatzi bat bidaliz ohiko postaz goian adierazitako Udalaren helbidera, nortasun-agiriaren fotokopiarekin batera, edo, telematikoki, esteka honen bidez:<br>https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/ZonaPrivada/SolicitudNueva.aspx?idayto=34&idioma=eu-ES&TipoExpediente=ARCO&Doc=5 | **Eskubideak**<br>**Derechos** | Acceso, rectificación, supresión, limitación, oposición y portabilidad, así como otros derechos explicados en la Información Adicional.<br>Puede ejercerlos remitiendo un escrito por correo postal a la dirección arriba indicada y acompañándolo de fotocopia de documento de identidad acreditativo, o telemáticamente a través del siguiente enlace:<br>https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/ZonaPrivada/SolicitudNueva.aspx?idayto=34&idioma=es-ES&TipoExpediente=ARCO&Doc=5 |
| Datuen babesari buruzko informazio gehigarria gure pribatutasun-politikan kontsultatu dezakezu.<br>http://eskoriatza.eus/udala/pribatutasun-politika/ | **Informazio gehigarria**<br>**Información adicional** | Puede consultar la información adicional sobre Protección de Datos en nuestra Política de Privacidad.<br>http://eskoriatza.eus/es/ayuntamiento/politica-de-privacidad/ |

Eskoriatza, ……..ko ……………………..…aren ……….a

Sin.

**Sinadura bakar honekin sinatuta geratzen dira inprimaki honetako gainerako orriak ere. Eskatzaileak adierazten du adierazitako datuak egiazkoak direla, eta, beraz, bere gain hartzen du datuak oker egotearen erantzukizuna. /** La firma de esta hoja supone la del resto de las hojas del formulario. La persona solicitante declara que los datos expresados son ciertos, por lo que se hace responsable de las inexactitudes o errores que contenga.